

Ikasleek campusetan jasaten dituzten hainbat arazo salatzekeo kanpaina bat jarri du abian Astindu-k

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 17/09/2025

“Ez ezazu amua irentsi” kanpaina azaltzeko eta dinamikaren berri emateko, aurkezpen saioak egingo dituzte bihar.

ASTINDU dinamikak kanpaina berri bat jarri du martxan, ikasleek campusetan jasaten dituzten hainbat arazo salatzekeo eta horien aurrean antolatzekeo. Lehenik eta behin, unibertsitatearen idealizazioaz hitz egin dute: “Zenbatetan saldu izan digute unibertsitatearen ametsa bizitzan zehar? Hau bizitzaren askatasunaren, gozamenaren eta ezagutzaren puntu gorena balitz bezala. Zenbatetan esan digute hura dela bizitza ospetsu bat edukitzeko bide bakarra? Bizitzan arrakasta izateko, gure ametsak egiaztatzekeo modua, beste edozein bide mespretxatuz. Eta zenbatetan irentsi behar izan dugu amu hau aurrean daukagun etorkizun iluna apaindu nahian?”, eta segidan, fikzio eta mito horien guztien atzean aurkitzen den errealitate salatu dute: “Karrera erabat euskaraz ezin egitea, matrikulen kostu astronomikoak, pisuaren edota garraioaren prezio neurrigabeak...”.

ASTINDU-ren ustez, hasierako arazo hauek gairitu arren, geratzen dena ez da askoz ere hobe: “irakasleak elkarren artean estaltzea, ikasleen baliabideen zahartasuna, hauek euskaraz aurkitzekeo ezintasuna edota, segurtasuna aitzaki, unibertsitateko ustezkeo eremu askean bai seguraten, bai txakurren jazarpen eta gehiegikeria”. Bide horretan, unibertsitatean sakondu ahala, problematikak handitzen besterik ez doazela ohartarazi dute: “GRALaren gaiak aukeratzeko aferak, masterren kostuak, hautazko arloen eskaintza urria...”. Izan ere, dinamikak adierazi duenez, unibertsitateak soilik gauza bat eskaintzen du gaur egungo sistema kapitalistaren baitan eta hori ez da ez ezagutza, ez heziketa, titulua baino.

Horren aurrean, erantzun antolatu bat emateara deitu du dinamikak, “Euskal Herriak frantziar zein espainiar estatu kapitalisten baitan pairatzen duen zapalkuntzaren aurkako borrokaren barnean”. Era berean, lan politikoa azaltzeko eta nondik norakoen berri emateko, aurkezpen saioak egingo dituzte militanteek bihar. Lehenengoa Leioako Canpusean izango da, GKZ-ko 6. gelan, 11:30etan. Ondoren, Gasteizko Canpusean egingo dute, Letrak 1.52 gelan, 13:00etan.

<https://eh.lahaine.org/ikasleek-campusetan-jasaten-dituzten-hainbat-arazo-salatzekeo>